

PLE 04-JUL-24 (5/CP) KREDITU-SORRERA IRUÑEKO UDALEKO 2024ko
AURREKONTUAN, ABAL BATEN BETEARAZPENAREN ONDORIOZ
LORTUTAKO APARTEKO DIRU-SARREREN BIDEZ
FINANTZATUA.

PLE 04-JUL-24 (5/CP)

« IKUSIRIK espedientean jasotako agiriak, Iruñeko Udalaren 2024ko aurrekontuaren aldaketari buruzkoak (Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 27an hartutako Erabakiaren bidez onetsia), beharrezkoak baitira hasiera batean aurrekontuan sartu ez ziren Oskiako Andre Maria kaleko aparkalekuan egokitzapen-lanak egiteko gastuetarako, Banco Popular Español SAK (egungo Banco Santander SA) emandako banku-abalaren –Abalen Erregistro Berezian inskribatua, 0005/04792 zenbakiarekin– betearazpenaren bidez lortutako diru-sarrerekin finantzatuko direnak, Oskiako Andre Maria eta Uxueko Andre Maria kaleetan ibilgailuendako aparkaleku bat eraikitze eta erabiltzeko administrazio-emakidaren kontratuan behin betiko berme gisa, zeina behin betiko ebatzi baitzen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 19an emandako erabakiaren (11/PS) bidez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat, eta indarreko Aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-sorrera onestea 40/45300/619000 partidan (Oinarrizko azpiegiturak eta garraioak - Berrezarpen-inbertsioak erabilera publikoko azpiegitura eta ondasunetan), 87.425,22 euroko zenbatekoarekin, ibilgailuen aparkaleku batean egokitzapen-lanak egiteko, Banco Popular Español SAK (egungo Banco Santander SA) emandako 0005/04792 zenbakidun banku-abalaren betearazpenaren bidez finantzatua (diru-sarreraren 20/77000 partida).

2.- Aldaketa honi aplikatzen ahalko zaio indarreko aurrekontua betetzeko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.



E80032C11AAB00884EC66513F720C4DAHC